

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2025eko otsailaren 11ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

– Erabakiak:

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

60/2025 Erabakia, otsailaren 11koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko udalekin lankidetzaren hitzarmenak izenpetzeari, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ikuskatzeko.

61/2025 Erabakia, otsailaren 11koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea kontrata dadila, prozedura ireki bidez, zergen arloko informazio telefoniko eta telematikoko zerbitzua, bai eta Ogasun Zuzendaritzaren aurretiko hitzordua emateko zerbitzua ere, 483.770,10 euroko zenbatekoarekin, BEZa barne, eta urte bateko epean gauzatzeko.

62/2025 Erabakia, otsailaren 11koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuan araututako laguntza lerroaren seigarren emakida.

63/2025 Erabakia, otsailaren 11koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Egintza bat baliozkotzea, nahiz eta Kontuhartzaitza eta Kontrol Zerbitzuak haren aurkako eragozpenak adierazi (Esp.: CRADO 2024 0000004165).

64/2025 Erabakia, otsailaren 11koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea martxoaren 21eko Kontseiluaren 132/2023 Erabakiaren bidez adjudikatutako aseguru polizen zenbait kontraturen likidazioari.

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

65/2025 Erabakia, otsailaren 11koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea 2025eko ekitaldian Vitoria-Gasteiz Araba Mobility Lab Fundazioari egin beharreko ekarpenei.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

66/2025 Erabakia, otsailaren 11koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea asmo erabaki bat sinatzeari Vitoria-Gasteizko Udalarekin, "Vitoria-Gasteiz Araba Film Comission" abian jartzeko oinarriak ezartzeko.

67/2025 Erabakia, otsailaren 11koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Nerbioiko Parke Linealeko bide berdea (Urduña-Delika tartea) gauzatzeko proiektuaren obren kontratua gauzatzeko epea luzatzeari. Proiektu hori Kontseiluaren ekainaren 4ko 343/2024 Erabakiaren bidez esleitu zen.

68/2025 Erabakia, otsailaren 11koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea martxoaren 2ko Kontseiluaren 104/2021 Erabakiaren bidez adjudikatutako kontratuaren luzapena aldatzeari.

69/2025 Erabakia, otsailaren 11koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Ezestea maiatzaren 21eko Kontseiluaren 306/2024 Erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa.

70/2025 Erabakia, otsailaren 11koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea abenduaren 23ko Kontseiluaren 796/2024 Erabakian egindako hutsen zuzenketari.

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

71/2025 Erabakia, otsailaren 11koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Ismael Andrés SA enpresari adjudikatzea Madril-Hendaia lineako 468/571 kp-ko Manzanosko trenbide pasagunea kentzeko A-4342 errepidearen saihebidetza eraikitze proiektuaren obrak, 3.801.835,16 eurotan, BEZa barne, eta gauzatzeko hamabi hilabeteko epearekin.

72/2025 Erabakia, otsailaren 11koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespina ematea Arabako Foru Aldundiaren herri arteko garraio zerbitzuaren eta eskualdeko garraioaren kudeaketa eta kontrol zentroa mantentzeko zerbitzu kontratuaren likidazioari, zeina abenduaren 28ko Kontseiluaren 844/2021 Erabakiaren bidez esleitu baitzen.

73/2025 Erabakia, otsailaren 11koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespina ematea Alavabusean eta eskualdeko garraioaren erabiltzaileentzako arreta zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeko espedienteari, 280.000,00 euroko aurrekontuarekin, BEZa barne, eta urtebeteko gauzatzeko epearekin.

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

74/2025 Erabakia, otsailaren 11koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Baimena ematea Antoñanako Administrazio Batzarrari epe luzerako mailegu bat hitzartzeko, hiri azpiegituren obraren gastuak finantzatzeko.

75/2025 Erabakia, otsailaren 11koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Baimena ematea Tuyoko Administrazio Batzarrari epe motzerako kreditu eragiketa bat hitzartzeko, aldi baterako finantzatzeko plaka fotovoltaikoak instalatzeko obra.

NEKAZARITZA SAILA

76/2025 Erabakia, otsailaren 11koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespina ematea nekazaritza ustiattegietan inbertsioak egiteko laguntzen 2025eko deialdiari.

77/2025 Erabakia, otsailaren 11koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespina ematea nekazari gazteak ezartzera bideratutako laguntzen 2025erako deialdiari.

78/2025 Erabakia, otsailaren 11koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Arabako Lurralde Historikoan baso suteen aurka babesteko azpiegitura egokitzeko kontratua Excavaciones Mendiola enpresari esleitzea 500.000,00 euroan, BEZa barne, eta gauzatzeko urtebetez.

KULTURA ETA KIROL SAILA

79/2025 Erabakia, otsailaren 11koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespina ematea urriaren 22ko Kontseiluaren 610/2024 Erabakia aldatzeari. Erabaki horren bidez eskola kirola kudeatzeko hitzarmenak sinatzea onartu zen.